



2014KO APIRILAREN 24KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko apirilaren hogeita lauan, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Josema Imanol Aran Barandiaran, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Ur-tzi Iruin Arruti, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada, eta Juan Manuel Serna Portugal.

Maialen Aldasoro Aranburu, Patxi Albisu Estensoro eta Felix Urkola Iriarte zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2014ko martxoaren 27an egindako ohiko eta 2014ko apirilaren 15ean egindako ez-ohiko bilkuretako aktak.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ez-ohiko bilkurako aktak, beraientzat garrantzitsuak enplegua eta ekonomia zirela esan zuela eta hori ez dela jaso.

Hau esanda, gainontzean aktak idatzita dauden moduan onartzen dira.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- 15 H.J.A. (SANTA MAGDALENA-MIKELAR-SAN JOSE)KO A.30 LURSAILAREN (MIKELAR 32) XEHETASUN AZTERKETA.-

Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 15 Hirigintz Jarduketako Areako (Santa Magdalena-Mikelar-San Jose) a.30 lursailaren (Mikelar 32) Xehetasun Azterketari 2013ko apirilaren 26ko Tokiko Gobernu Batzarraren akordio bidez eman zitzaion hasierako onarpena. Xehetasun Azterketa hau Jesus Mendia Elizburuk sustatutakoa da eta Kele Lasa Aiestaran e Ibon Astegia Begiristain arkitektoek idatzitakoa.

Xehetasun Azterketa hau jendaurrean hogeitaz eguneko denboraldian eduki da eta epe horretan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.



Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzaren aldeko txostena ere lortu da.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du honekin eta eraikigarritasunaren azalera handitzen dela orain arte honen antzeko kasuak ez direla baimendu eta honekin aurrekari bat ezartzen dela eta hau horrela beste kasu guzti horiek berrikusi egin beharko lirakela. Hau esan eta gero esaten du baita ere alde bozkatuko dutela.

Alkateak esaten du hori hirigintza batzordean eztabaidatu zela onargarria dela on-dorioztatu dela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du beraiei ere kezka bera etorri zitzaizela burura baina teknikoki oniritzia eman zaionez baietz bozkatuko dutela.

Hau honela, Osoko Bilkurak, aho batez, Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 15 H.J.A. (Santa Magdalena-Mikelar-San Jose)ko a.30 lursailaren (Mikelar 32) Xehetasun Az-terketa hau behin betikoz onartzea erabakitzen du.

IV.- BIDEGI S.A.REKIN HITZARMENA.-

BIDEGI, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentura atxikia, AP-8 eta AP-1 autobideetako Gipuzkoako zatiak kudeatu eta ustiatzen dituen da eta Gipuzkoa-ko Foru Aldundia (aurrerantzean GFA) eta BIDEGIk izenpeturiko hitzarmenen arabera, be-
rau da baita ere aipaturiko bide azpiegituretako kanona administratzen duena.

Bestalde, 2010eko ekainaren 15eko 4/2010 Foru Dekretu Arauak eta ondorengoek, eskumena ematen diote Mugikortasun eta Bide Azpiegituretako Departamentuari, eta bide batez BIDEGIri, AP-8 eta AP-1 autobideetako Gipuzkoako zatiko kanonaren gainean des-
kontuak egiteko.

Agindutako funtzio hauek garatzeko BIDEGI behartuta dago, deskontuaren onura-
duna Gipuzkoako Udalerri batean erroldatua dagoela egiaztatzen.

Hau honela, eta BIDEGIk Lazkaoko Udalaren biztanleen errolda kontsultatu ahal
dezan, BIDEGI eta Lazkaoko Udalaren arteko hitzarmena egitea planteatzen da.

Hitzarmen hau egiteak, deskontuen onuradun diren erabiltzaileen erroldatzera sar-
bidea izateko baimena ematea dakar.

Sarbidea, soil soilik, onuraduna erroldatuta dagoen bai ala ez jakitera mugatuko
da.

Errolda konprobatzeko izapidea, Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea-Sociedad Fo-
ral de Servicios Informáticos (aurrerantzean, IZFE) enpresaren bidez kudeatuko da.

Erroldako datuetarako sartzeak interesatuaren baimen espresoa izango du.

Gaia aztertu ondoren, eta Ogasuna, Pertsonala eta Antolaketa Batzorde Informa-
tzailearen proposamenez, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko bo-



tuekin, zera erabakitzen du: BIDEGI S.A. enpresarekin, honek Lazkaoko Udalaren biztanleen erroldako datuetako sarbidea izan dezan, hitzarmena izenpetzea.

V.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du GOIEKIk ordezkariarekin alderdien artean zegoen auzia konpontzeko bilkurak egin direla Bildu eta EAJren artean eta adostasuna lortu dela udal honetako GOIEKIk ordezkaria EAJkoa izan dadin eta orain falta den bakarra izendapena egitea dela.

Alkateak (Bildu) esaten du horren jakitun dela eta ahalik eta bizkorren egiten saiatuko dela.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

